

Ponle cara

|| *Me quedé sin trabajo, el banco me desahució y ahora vivo en la calle. Lo peor es que parece que dejas de existir. Llegó un momento en que no me importaba nada.* ||

Sara
41 años

¿y tú que dices?
di basta

NADIE SIN HOGAR



Campaña de personas sin hogar
27 de Octubre de 2019

ORGANIZA



COLABORA



FINANCIA



JARRIOZU AURPEGIA

Eta zuk, zer diozu? **Aski da. INOR EZ ETXERIK GABE¹**

Urriaren 27an etxerik gabeko pertsonak ikusarazteko xedea daukan Jardunaldi bat egingo dugu. Etxerik ez izatea etxebizitza bera ez izatea baino askoz gehiago da... espazio fisiko bat osatzen duten aspektu batzuk dira; baina, horretaz gain, pertsona ororen ongizaterako beharrezkoak diren beste dimentsio batzuk hartzen ditu barne (harremanak, bizitzaren zentzua, eskubideak...). Guk parte hartzen dugun erakundeetan 27 urte daramatzagu ekitaldi hau antolatzen, errealitate honen gainean sentsibilizatzeko eta arazoari aurre egiteko. Baina lorpen ugari izan badira ere, iruditzen zaigu udako ekaitz baten modukoa izaten dela; behin pasata, ohiko ikusezintasunean murgilduta geratzen da arazoa.

Aurtengo leloak aurpegia jartzera animatzen gaitu. Denok dakigu zein garrantzitsuak diren aurpegiak, arazoen inguruan enpatizatzeko orduan. Gure kalkuluen arabera, Euskadin 2.000 pertsona inguru bizi dira etxerik gabe. 2018ko kontaketaen arabera, 435 pertsona kalean daude (soilik Bilbon 211 pertsona lokalizatu ziren). Gainera, EUSTATen arabera, etxerik gabeko pertsonen arreta emateko EAEko zentroetan egunero ostatu hartzen duten pertsonen kopurua % 25,6 handitu zen, 2016ko kopuruarekin alderatuta.

Baina datu hotz eta anonimo hauen atzean gu gaude, izen-abizenak ditugun pertsonak, sufritu eta negar egiten dugun pertsonak, maitatu eta barkatzeko gai garen pertsonak. Azken finean, zoriontsu izan nahi dugun pertsonak. Beldurrak, estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz gero, ikusiko duzue errealitate anitza osatzen dugula; miseria, aberastasunez eta aukeraz betetako gizon eta emakumeak garela. Aurpegia jartzea aurrerapauso garrantzitsua izango da gizarte inklusiboago lortzeko, gizaki bat ere bazterrean ez uzteko, gizakiok baikara benetako balioa.

Gizarte arazo honi heltzeko, honakoak izango dira oinarriak:

- Etxegabetasun egoeren **PREBENTZIOA**. Aspektu asko sartzen dira tartean pertsona batek etxerik gabe amaitzeko. Bakoitzak bere istorio eta prozesu propioa ditu. Hala ere, badaude aspektu komun batzuk gutako guztion artean:
 - o Etxebizitza bat lortzeko eskubiderik eza;
 - o Baliabide ekonomiko eta laguntza falta;
 - o Lan duinik ez izatea;
 - o Zirkunstantzia pertsonalak (gaixotasunak, adikzioa, familia harremanak, ohiturak...).

Denon artean arazoaren prebentzioan lan egin behar dugu.

KEZKATZEN GAITUENA:

- Gizartean harremanak ahultzen ari dira; lotura pertsonalak hautsi edo mugitu egiten dira, ekonomia edo erabilgarritasun faktoreen arabera.
- Lana: bazterkeria eta pobrezia egoera atzean utzi ahal izateko bizimodu duina garatzeko tresna.

Horregatik, **hainbeste pertsonak bizi duten egoera prebenitu eta aski dela esateko, zera** ESKATU NAHI DUGU:

1 Herritarrei: GOGOAN IZAN etxegabetasuna eskubide urraketa bat dela, eta konponbidea daukala.

Aurreiritzi eta beldurrak gainditzeko eskatzen dugu, pertsona horiengana errespetuz eta sentiberatasunez gerturatzeko: Aurpegira begiratzen badiegu, arazoari aurre egiteko gai izango gara, eta harremanen eta gizatasunaren ikuspegitik, konponbidea aurkituko dugu. Harremanak dira gure gizatasunaren oinarria.

Gizarte erakundeei: Sarean lan egiteko eremuak SUSTATZEN JARRAITU BEHAR DUGU, etxegabetasuna prebenitzeko neurri egokiak hartzeko.

2 Hedabideei: Etxerik ez duten pertsonen inguruko informazio sentikorra eta estereotiporik gabea emateko ESKATU BEHAR DIEGU. Etxerik gabe bizi diren pertsonen ikuspuntua txertatzeko.

3 Administrazio Publikoei: ZERA ESKATZEN DUGU:

- Etxegabetasuna prebenitzeko BENETAKO **politika publikoak** hartzea, etxearen galerari aurrea hartu eta baliabide egokietarako sarbidea bermatzeko.
- Etxebizitza lortzeko neurrien sustapena, formula desberdinak aztertuz (etxebizitza publikoak, alokairu soziala...).
- EAEko Legerian jasotako Eskubide guztien bermea:
 - o Osasun eta Hezkuntza Eskubide unibertsalak.
 - o Eskubide subjektiboak:
 - Gutxieneko errentak (Diru-sarreraren bermea).
 - Gizarte zerbitzuak.
 - Inklusioa (bi modalitatea: Laneratzea eta gizarteratzea).
 - Etxebizitza.